

## BALTISTANGO NURBAKHSI ERLIJIOA

Islama Pakistango erlijio nagusia da, eta horren baitan hainbat talde edo joera daude: Xiia, Sunia edo Ismailia. Baltistanen, nagusiki Xiiak eta Nurbakhshi sufistak dira, eta azken multzo horretakoak dira ekialdeko eskualdeetako balti herrietakoak, eta horren barruan sartzen da Hushe bailara ere.

Fede horren hasierara jotzeko, Sufi mugimenduaren adar bat aztertu beharko dugu, eta zehazki esanda, Sayyid Muhammad Nurbakhsh mistiko iraniarrak (1392-1464) sortutakoa. Izan ere, 1423. urtean mesias izendatu zuten, gaur egun Tajikistan dagoen eskualdean. Hil zen arte, bere fedearen berri ematen ibili zen erromes, baina mende erdi igaro behar izan zen Nurbakhshi adarrekoek Katxemiran kultur arloko nagusitasuna lortzeko, Shams al-Din Iraqi-ren gidaritzapean. Hala ere, pozak ez zuen luze iraun, XVI. mendearen erdialdean turkiar-mongoliarrak nagusitu eta haietako askok Baltistango mendietan bilatu behar izan baitzuten aterpea. Nahiz eta Baltistanen orduan tibetar budistak bizi, budistok haien praktikak bereganatzea lortu zuten. Hori dela eta, gaur egun ere eskualde hartan indarra izaten jarraitzen dute.

Sufismoa "erlijioa" baino (mendebaldean erlijioari ematen zaion esanahiaz ari gara), praktika mistiko bat da. Galdera existentzialak ulertzen saiatzen da (zer egiten dut nik mundu honetan?, zergatik existitzen dira gauzak eta zergatik ez ezerez soila?, zein da munduak duen, eta nik neuk sakonean dudan logika?...), eta ulertu ahal izateko, pertsonaren barne-muinetara jotzen du. Horretarako, ohiko gogoeta-prozesuetatik, hau da, gure buruez eta erreallitateaz pentsatu ohi dugunetik, haratago joan beharra dago, edo haratago baino, honantzago etorri behar dugu. Bide horretan barneratzen direnek diotenez, azkenean benetako erreallitatea aurkitzen dute, eta erreallitate hori "Kontzientzia", "Jainkoa" edo beste edozein izendapen erabilia izenda dezakegu (izan ere, hipostasis edo "sorburuko erreallitate" hori ezingo luke inolako termino edo kontzeptuk osorik bildu, saiatuta ere).

Sufismoak ezaugarri bereizgarri bat du: bihotzaren bidea dela. Egiten dituen ahalegin guztien helburua fededunaren baitan "maitasuna loratzea" da; sufiek diotenez eta bizi dutenez maitasunaren loratze hori Jainkoaren itxura intimoena baino ez da. Ezaugarri horrek beste ikuspegi mistiko batzuetatik bereizten du, esate baterako behatze emozionaletan oinarritzen direnetatik (budismoaren meditazio bipasanoa), edo behatze mentalean oinarritzen direnetatik ("zen" budismoa), edo pertzepzioen desagertzea aldarrikatzen dutenetatik (hinduisten eta tibetarren mantrak, eta kristauen otoitzak).

Gaur egun, Nurbakhshi batzuek beren Islamaren bertsioa Islamean nagusi diren Suni eta Xiien arteko indarkeriazko gatazkaren sendagaitzat aurkezten dute, areagotu egin baita borroka hori

80ko hamarkadatik. Hala ere, batekoek eta bestekoek astintzen dituzte Nurbakhshi joerakoak. Egoera hori ulertzeko, kontuan izan behar da mistizismo sufia Islama hasi zen VII. mendea baino lehenagokoa dela. Sufiek erlijio-egoera berrira egokitzeko modua izan zuten, baina ez zuten beti lortu beraien praktikak bakean garatzerik.

Egia esanda, bai Suniek bai Xiiek jazarri egin dituzte Sufiak, eta baita sarraskiak egin ere, historian zehar, eta arrazoi nagusia ondorengoa da: Sufien mistikak "existentziaren misterioaren" edo "jainkoaren" zuzeneko errealizazioa bilatzen du, eta egituratutako erlijioek, berriz, bitartekaritza bidezko errealizazioa dute xede, hain zuzen ere erlijioen agintariak bideratutako jarduera sozial eta zeremonien bidez, hau da, "Jainkoaren bitartekarien lana oinarri hartuta. Hori dela eta, erlijioa ulertzeko moduok elkar gaizki hartzeko joera dute, eta ondorioz, Nurbakhshi adarrekoek XX. mende osoan zehar "normalizazio islamikoa" jasan behar izan dute, eta gaur egun ere horrela jarraitzen dute, batzuetan indarkeria ere tartean dela, eta Pakistango estatuak ezikusiarrena egiten duelarik.

Hori hala izanik ere, baltiarrek beraien kultur eta erlijio arloko idiosinkrasia berezia jarraitzen dute (forma islamikoa izateaz gainera, erlijio baltiarrak budismoaren eta bon deiturikoaren eragina ere badu –azken hori budismoaren aurreko erlijio txamanikoa da-). Penagarria izango litzateke gaur egun Pakistanen gertatzen ari den "talibantze" prozesuaren ondorioz, eta estatuak egoera horren aurrean duen joeraren ondorioz (dagoeneko arazoa bertan baita), balti erlijioak amore ematea, sinkretismoaren eredu garbia izan delako, kulturen eta erlijio-joeren arteko elkarriketa eredu.

Xabier Renteria EHUKo irakaslea, 2007-11-26